



TOLOSAKO  
UDALA

## GOBERNU BATZARRA

2019.01.28

**Alkatea:**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**

**Patxi Amantegi Zubiria**

**Nerea Letamendia Beloso**

**Jokin Azkue Arrastoa**

**Iñigo Alonso Sarasibar**

**Idazkaria:**

**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontuhartzailea :**

**Ainhoa Molinos Zubiaurre**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko urtarrilaren hogeita zortzian, 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Aurreko akta onartzea.
2. Onartzea trafiko laguntzaileak kontratatzeko (Inauterietako igandetik asteartera) deialdia eta oinarriak.
3. Onartzea Tolosako Beotibar pilotalekuko ostalaritza eraikinaren teilatua eta fatxada birgaitzeko eta pilotalekuko eraikineko irisgarritasuna hobetzeko obren 3. ziurtagiria.
4. Tolosako Udaletxearen tokiko eremuaren informatika-sareak berritu eta zabaltzeko hornidura kontratuaren lizitazio egintza baliokotzat jotzea eta kontratua esleitzea.
5. Onartzea Kontratazio-Mahai Iraunkorraren osaera.
6. 79/2018 eta 80/2018 faktura-zerrendak.

### **1. AURREKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko urtarrilaren 21ean egindako batzarreko aktak aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.



## **2. ONARTZEA TRAFIKO LAGUNTZAILEAK KONTRATATZEKO (INAUTERIETAKO IGANDETIK ASTEARTERA) DEIALDIA ETA OINARRIAK.**

Udaltzaingotik, 2019. urteko Inauterietako antolaketarako eta dauden beharren arabera, 12 trafiko laguntzaile kontratatzea proposatu dute, hiru egunez (igandetik asteartera). Behar hauek udaltzainburuaren txosten batean islatu dira, non festaren segurtasuna bermatzeko beharrezkoa ikusten duen hiru egun horietarako giza-baliabide horiek kontratatzea.

Honela, urtero bezala, trafiko laguntzaileak hautatzeko oinarriak prestatu dira, ondoren, publizitatea eman eta hautaketa prozesua bideratzeko. Hautaketa prozesua Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015eko Errege Dekretu Legegilean oinarritzen den berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioetan oinarritzen da, aipatu langileak izendatzeko beharra eta urgentzia justifikatuta.

Zentzu berean, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 9/1989 Legearen 33. artikulua ondorengo xedatzen du: "33. atala.1. Bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako langilegoa arauz jarritako prozedurari jarraiki aukeratuko dira, agiritasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-irizpideak kontuan izanik eta ahalik eta bizkorren jokatzen saiatuz. Dena dela, bitarteko eta aldi baterako langilegoak titulaziori buruzko eskakizun nagusiak eta aldikotasunez beteko duten lanpostura iristeko edo bete behar duten egitekorako eskatutako gainerako baldintzak bete beharko dituzte."

Honela, azkartasun printzipio honetan oinarrituta eta kontuan hartuta trafiko laguntzaile horiek egingo dituzten funtzioak, hautaketa prozesua, salbuespenezko modu batean, elkarriketa baten bidez bideratzea proposatzen da, beti ere titulazioa eta bigarren hizkuntz eskakizuna egiaztatzen badute.

Bestalde, uztailaren 3ko 6/2018 Legeak, 2017 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen ditu. Bertan, aipatu Legearen 20. artikuluko bigarren apartatuak dioenaren arabera, ezin izango da egin aldi baterako kontrataziorik, ezta bitarteko funtzionarioik izendatu ere, baldin eta ez bada salbuespenezko kasuren bat, premiazko eta atzeraezinezko beharren bati erantzuteko; gainera, mugatuko dira lehentasunezko izaera duten edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduetan eragina duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletara.

Horregatik, departamentu bakoitzeko txosten/proposamenak eduki behar ditu, gutxienez, hurrengo atal hauek:

- Proposatu nahi den kontratazioak ohiz kanpokoa izan behar du eta ez inolaz ere kasu arrunta.
- Txostenean justifikatu eta arrazoitu egin behar dira kontratazioaren premia eta geroraezintasuna.
- Kontratazio proposamena mugatu egin behar da lehentasunezko izaera duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletara. Horretarako, justifikatu egin behar da lehentasun hori, kontuan izanda zure departamentuan une konkretu bakoitzean dauden beharrak.



TOLOSAKO  
UDALA

Hori guztia kontuan hartuta, udaltzainburuak 2019ko urtarrilaren 21ean txostenean aspektu hauek justifikatu ditu.

Bestalde, aurrekontu konsignazioari dagokionez, 2019. urteko aurrekontuan partida bat honetarako aurreikusia dago, bere kostua 9.226 eurotan finkatzen delarik. Ordainsariei dagokienez, trafiko laguntzaile bakoitzak Udalhitz-eko 8. mailaren baliokidea kobratuko du.

Hortaz, ikusirik aplikagarria den legedia, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** 12 trafiko laguntzaile kontratatzeke deialdia lehentasunezko deklaratzeari, zerbitzua premiazkoztat eta atzerazintzat jotzen delako.

**BIGARRENA.-** Onartzea trafiko laguntzaileak kontratatzeke (Inauterietako igandetik asteartera) deialdia eta oinarriak, eta dagokion publizitatea ematea. Oinarriak hauek dira:

### OINARRIAK, TRAFIKOKO LAGUNTZAILEAK KONTRATATZEKO INAUTERIETARAKO.

#### **1.- Deialdiaren helburua**

Tolosako Udalak 12 **TRAFIKO LAGUNTZAILE** hautatu behar ditu Udaltzaingorako, Inauterietan jarduteko (martxoaren 4an, igandea; 5ean, astelehena; eta 6an, asteartea). Deialdia handitzeko aukera egongo da beste sei trafiko laguntzaileekin, zerbitzu beharren arabera.

#### **2.- Prozesuan parte hartzeko baldintzak**

- 16 urte beteta edukitzea.
- Eskola graduatua, lehen mailako lanbide heziketa edo beste titulu baliokideren bat edukitzea.
- Lanpostuaren eginkizunak modu normalean burutzeko eragozpen izan daitekeen gaixotasun edo akats fisikorik ez edukitzea.
- Euskara jakitea lanpostuaren eginkizunak behar bezala betetzeko mailan.
  - Euskararen maila neurtzeko, Tolosako Udaleko Euskarako Zerbitzu Teknikoak (ez HAEEK) bidezko diren probak jarriko ditu 2019ko **otsailaren 19an**, Tolosako Udaletxean.
  - Azterketa honek ez du inolako balio ofizialik izango hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko. Lanpostu honen hautaketarako prozesuan parte hartzeko besterik ez du balioko.
  - Aurkeztutako norbaitek 2. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa badu, ez du euskarazko proba egin beharrik izango.



TOLOSAKO  
UDALA

### **3.- Baloratuko diren alderdiak eta elkarrizketa**

Izangaiak kontratatzeko, hurrengo faktore hauek baloratuko dira:

- Lanpostuarekin lotura duten ikastaroak, 0,2 puntu 20 orduko ikastaro bakoitzeko.
- Eskarmentua Larrialdiko eta Babes Zibileko zerbitzuetan, 0,2 puntu hiru hilabeteko zerbitzu bakoitzeko.
- Parte hartu izana ikuskizun publiko, kirol arloko edo jende kontzentrazio handiko ekitaldien antolaketan, 0,2 puntu ikuskizun bakoitzeko.
- Atal honetan gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira.

Lehen adierazitako alderdiez gainera, 2019ko **otsailaren 19an** izangaiei elkarrizketa pertsonala egiteko deialdi bakarra egingo zaie. Elkarrizketa ordua Tolosako Udalaren web orrian argitaratuko da, [www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus), otsailaren 15ean hain zuzen.

Elkarrizketan, lan eskarmentuaz gain, lanposturako egokitasuna, erantzunkizun profesionala eta zerbitzu publikorako bokazioa neurtuko dira.

### **4.- Epaimahai kalifikatzailea.**

Epaimahai kalifikatzailea era honetan egongo da osatuta:

Lehendakaria:

- Udal idazkaria.

Batzordekideak:

- Udaltzaingoko Burua
- Udaltzaingoko Azpiburua
- Giza baliabideen teknikaria.

Idazkaria:

- Giza baliabideen teknikaria edo berak izendatzen duen funtzionarioa.

### **5.- Dokumentazioa eta aurkezteko epea**

Interesdunek eskaera orria Tolosako Udaletxeko Informazio eta Erregistro Bulegoan eskuratu ahal izango dute, Plaza Zaharra 6-A zokian kokatua (eta [www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus) orrian) eta Udaletxean bertan aurkeztu behar dute **2019ko otsailaren 12ko 13:00ak baino lehen**.

Eskaerari erantsi behar zaizkio egiaztagirien fotokopiak, hau da, oinarrien bigarren puntuan adierazten diren baldintzenak (NAN eta titulua) eta eskaeran alegatzen diren balorakizunenak.

### **6.- Dokumentuen aurkezpena eta kontratazioa.**

Hautatuek, Epaimahaiak proposatutako izangaien zerrendak jendaurrean jarri eta 3 laneguneko epearen barruan, Udaletxeko Giza Baliabideen Departamentuan bidezko diren agiriak aurkeztu behar dituzte, deialdian exijitzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko.



*Aipameneko epearen barruan dokumentazioa aurkezten ez duena edo dokumentazioa ikusi eta baldintzaren bat betetzen ez duena ezin izango da kontratatu eta bere jarduketa guztiak bertan behera utziko dira, aurkeztutako eskaeran faltsukerian erori izanaren erantzukizunaren kalterik gabe.*

### **7.- Gorabeherak.**

*Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak ebazteko eta hautaketa prozesua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko. Oinarri hauetan aurreikusten ez denaren aurrean honako xedapen hauek izango dira aplikaziozkoak: Estatuko Administrazioan Langileak Sartzeko Araudi Orokorra martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legea eta bat datozen gainerako xedapenak.*

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Kontuhartzaitza eta Giza Baliabide Departamentuari jakinaraztea.

### **3. ONARTZEA TOLOSAKO BEOTIBAR PILOTALEKUKO OSTALARITZA ERAIKINAREN TEILATUA ETA FATXADA BIRGAITZEKO ETA PILOTALEKUKO ERAIKINEKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO OBREN 3. ZIURTAGIRIA.**

Tolosako Udalak Construcciones Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L., enpresari esleitu zion Tolosako Beotibar Pilotalekuko ostalaritza eraikinaren teilatua eta fatxada birgaitzeko eta pilotalekuko eraikineko irisgarritasuna hobetzeko obren kontratua, 489.770,99 € (BEZa barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dira, ondorengoak direlarik zenbatekoak:

Ziurtagiri zenbakia.....	Faktura zenbakia.....	Zenbatekoa
1. ziurtagiria.....	60/2018.....	16.911,38 €
2. ziurtagiria.....	77/2018.....	48.366,58 €
GUZTIRA.....		65.277,96 €

Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako hirugarrena, honakoa da:

Ziurtagiri zenbakia.....	Faktura zenbakia.....	Zenbatekoa
3. ziurtagiria.....	100/2018.....	372.548,62 €
GUZTIRA.....		372.548,62 €

Ziurtagiria aztertu ondoren, ontzat ematen da.”



Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Ontzat ematea Tolosako Beotibar pilotalekuko ostalaritza eraikinaren teilatua eta fatxada birgaitzeko eta pilotalekuko eraikineko irisgarritasuna hobetzeko obren 3. ziurtagiria, ondorengo kopuruekin:

3. ziurtagiria ( BEZik gabe).....	307.891,42 €
3. ziurtagiria (% 21eko BEZa barne).....	64.657,20 €
GUZTIRA.....	372.548,62 €

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari ematea.

### **4. TOLOSAKO UDALETXEAREN TOKIKO EREMUAREN INFORMATIKA-SAREAK BERRITU ETA ZABALTZEKO HORNIDURA KONTRATUAREN LIZITAZIO EGINTZA BALIOKOTZAT JOTZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA.**

#### **1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren xedea:	Tolosako Udaletxearen tokiko eremuaren informatika-sareak berritu eta zabaltzeko hornidura.
Unitate sustatzailea:	Informatika
Espedientea:	2018HASI0002

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non Udal Idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

#### **2.- AURREKARIAK**

**Lehena.-** Tolosako Udaleko Informatika Departamentuko buruak 2018ko azaroaren 31n egindako txostenaren bitartez, aipatutako xedea duen kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, Administrazio klausula partikularren plegua, baldintza teknikoen plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria eta Idazkaritzaren eta Kontuhartzaitzaren txostenak eskatzen ziren jardunbidea burutu ahal izateko.



Bigarrena.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), bere IV. Kapituluaren (298. artikulutik aurrera), hornidura-kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu, horien artean, alokairua, egikaritzea, prezioaren ordainketa eta kontratua etetea beste batzuen artean.

Hirugarrena.- Aipatutako txostenean, administrazio klausula partikularren plegua osatzeko oinarrizko datuen inguruan egindako txostenean, kontratuaren xehetasunak aipatu zituen: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, bermealdia eta esleipen irizpideak.

Laugarrena.- Halaber aipatutako txostenean, SPKLaren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako Legeak hau zehazten du bere 28. artikuluan:

*“Artículo 28. Necesidad e idoneidad del contrato y eficiencia en la contratación.*

*1. Las entidades del sector público no podrán celebrar otros contratos que aquellos que sean necesarios para el cumplimiento y realización de sus fines institucionales. A tal efecto, la naturaleza y extensión de las necesidades que pretenden cubrirse mediante el contrato proyectado, así como la idoneidad de su objeto y contenido para satisfacerlas, cuando se adjudique por un procedimiento abierto, restringido o negociado sin publicidad, deben ser determinadas con precisión, dejando constancia de ello en la documentación preparatoria, antes de iniciar el procedimiento encaminado a su adjudicación.”.*

Bosgarrena.- 2018ko azaroaren 31n egindako txosten tekniko baten bidez, Tolosako Udaletxearen tokiko eremuaren informatika-sareak berritu eta zabaltzeko hornidura kontratatuzko jardunbideari hasiera eman zitzaion.

Seigarrena.- Espedientea eta klausula administratibo partikularren zein baldintza teknikoen pleguak 2018ko abenduaren 17an Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen; lizitazioaren deialdia, berriz, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratzailearen Profilean argitaratu zen, 2018ko abenduaren 18an.

Klausula administratiboen pleguan xedatutakoarekin bat etorrita, lizitazioa CPV: 32410000-0 kodearekin tipifikatuta zegoen kontratuak honako aurrekari hauek zituen:

- prozedura: irekia sinplifikatua.
- izapidetzea: arrunta.
- loteak: ez.

Zazpigarrena.- Behin pleguak onartuta, lizitazioari hasiera emanda eta hori kontratatzailearen profilean argitaratuta, Udaleko Informatika teknikariak 2018ko abenduaren 19an egindako txosten baten bitartez, onartutako pleguen aldaketa eskatzen zuen, epe batzuk luzatzeko asmoarekin. Izan ere Gabonetako datak eta eragiketen konplexutasunak zirela eta, komenigarria ikusi zen egikaritze-epe orokorra luzatzea eta proposamenak aurkezteko epea ere luzatzea. Edonola ere, Preskripzio Teknikoen pleguko



3.2.5 puntuko lanak eginda egon beharko dute, sare elektroniko guztia instalatuta, konfiguratuta eta testatuta, beti ere 2019ko otsailaren 8rako. Halaber, kontratua sinatu eta hurrengo 2 urteetan, enpresa esleipendunak sortutako azpiegiturak ondo funtzionatzen duela bermatu beharko du.

Zortzigarrena.- Aurrekoaren ondorioz, 2018ko abenduaren 20an egindako Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuen aipatutako aldaketa eta, horren ondorioz, pleguetan legezkoa den aldaketa egin zen. Horren berri Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratzailearen Profilean eman zen.

Bederatzigarrena.- Behin eskaintzak aurkezteko epea amaituta, ondorengo enpresak izan ziren proposamenak aurkeztu zituztenak:

- LKS, S.COOP. (F-20369153)
- INFOSER NEW TECHNOLOGIES,S.L. (B-87993622)
- REDYTEL INGENIERÍA DE TELECOMUNICACIONES, S.L. (B-48960611)

Hamargarrena.- 2019ko urtarrilaren 10ean, Kontratazio-Mahaia erantzukizunpeko adierazpena eta zifren edo ehunekoen bidez balora daitezkeen irizpideen eskaintza jasotzen zituen gutun-azal "bakarra" irekitzera pasa zen. Aipatutako enpresek, BAPParekin bat etorri, aurkeztu zuten dokumentazioa. Horretarako jarritako eranskineko eredia jarraitu zuten, baina INFOSER NEW TECHNOLOGIES,S.L. eta REDYTEL INGENIERÍA DE TELECOMUNICACIONES, S.L. enpresek aurkeztutako proposamenetan akatsak antzeman ziren kaudimen ekonomikoa eta teknikoa aurkezterako orduan. Aurreko guztia aintzat harturik, enpresa guztiei errekeritu zitzairen dokumentazio zuzena aurkez zezaten, luza ezin zitezkeen 3 eguneko epean, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Bestalde, LKS, S.COOP enpresak aurkeztutako proposamenak ez zuen baldintza teknikoen agiriaren 3.2.5 idatz-zatian azaltzen ziren lanentzako egikaritze-denbora betetzen eta epe hori betetzea derrigorrezkoa zenez eta gehienezko epea betetzen ez zenez, Kontratazio-Mahaiak enpresa lizitaziotik kanpo uztea erabaki zuen.

Hamaikagarrena.- 2019ko urtarrilaren 16ean, Kontratazio-Mahaiak kontratazio-teknikariak urtarrilaren 14an egindako txostena aho batez onartu zuen, non ziurtatzen zuen INFOSER NEW TECHNOLOGIES, S.L. eta REDYTEL INGENIERÍA DE TELECOMUNICACIONES, S.L. enpresek modu egokian zuzendu zituztela eskatutako dokumentazioak. Hori horrela, puntuazioa ondorengoa izan zen:

	INFOSER	REDYTEL
Precio total	4,03	31
Reducir el plazo total de entrega y ejecución	10	10
Garantía	0+0+0 = 0	2+2+6 = 10
Renovación de la electrónica de red adicional	0+0+0 = 0	3+3+3 = 9
Renovación de las conexiones de red adicionales	26	5+5+5+1 = 16
Tiempo de respuesta ante adversidades	1+1+0,5 = 2,5	2+2+1,5 = 5,5
Velocidad de las conexiones redundantes	2+2+2+0 = 6	2+2+2+1 = 7
<b>TOTAL / GUZTIRA</b>	<b>48,53 puntos</b>	<b>88,50 puntos</b>





TOLOSAKO  
UDALA

Hamabigarrena.- Puntuazioa ikusirik, Kontratazio-Mahaia 2019ko urtarrilaren 16an bildu zen eta kontratazio-teknikariaren txostena aho batez onartuta, kontratazio-organoari erreferentziako kontratua REDYTEL INGENIERÍA DE TELECOMUNICACIONES, S.L. (IFZa: B-48960611) enpresari esleitzea proposatu zitzaion kopuru hauekin: laurogei mila euro (80.000,00 €) —nagusia—, gehi % 21 —BEZa—, zeina baita, hamasei mila eta zortziehun euro (16.800,00 €); beraz, guztira, laurogeita hamasei mila eta zortziehun euro (96.800,00 €). Halaber, SPKLren 150. artikuluan xedatutakoaren arabera, beharrezko dokumentazioa aurkeztu zezan errekeritu zion.

Hamahirugarrena.- Behin errekeritutako dokumentazioa jaso eta aztertu ondoren, 2019ko urtarrilaren 22an kontratazio-teknikariak egindako txostenean dokumentazioa egokia zela esaten zen eta kontratua aipatutako enpresari esleitzea proposatzen zuen.

Hamalauugarrena.- 2019ko urtarrilaren 23an Kontratazio-Mahaia bildu eta aipatutako txostena aho batez onartuta, kontratazio-organoari proposatu zion erreferentziako kontratua REDYTEL INGENIERÍA DE TELECOMUNICACIONES, S.L. enpresari esleitzea.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Baliokotzat jotzea Tolosako Udaletxearen tokiko eremuaren informatika-sareak berritu eta zabaltzeko hornidura kontratuaren lizitazio-egintza eta erreferentziako kontratua REDYTEL INGENIERÍA DE TELECOMUNICACIONES, S.L. (IFZ: B-48960611) enpresari esleitzea honako ezaugarri nagusi hauekin:

- **Prezioa:** Nagusia: laurogei mila euro (80.000,00 €).  
BEZa (% 21): hamasei mila eta zortziehun euro (16.800,00 €). beraz,  
Guztira: Laurogeita hamasei mila eta zortziehun euro (96.800,00 €).
- **Epea:** Bederatzi aste, dagokion kontratua sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hala ere, Plegu teknikoko 3.2.5 puntuko lanak eginda egon beharko dira, sareko elektronika guztia instalatuta, konfiguratuta eta testatuta, beti ere, 2019ko otsailaren 8rako.
- **Backbone elektronika-sarearen bermealdia:** bizitza osorako.
- **Kableatuaren bermealdia:** 15 urte
- **Sare-korporatiboaren mantenuaren bermealdia:** 6 urte.
- **“Sare gehigarriaren elektronika berrikuntza”:** eraikin guztietan.



TOLOSAKO  
UDALA

- **“Sare gehigarriaren konexio berrikuntza”**: Aranburu jauregia, Errota, Usabal eta Erretengibel eraikinetan.
- **Arazoen aurrean erantzuteko denbora**: Erremotoa: 3 minutu; Presentziala: 3 ordu.
- **Ordezkapena**: 3 ordu; Depositua: ez.
- **Konexioen abiadura erredundantea**: 10GBPS.

**BIGARRENA.**- Esleipena jakinaraztea enpresa lizitatzailer guztiei.

**HIRUGARRENA.**- Ebazpena Euskadiko Kontratatzailearen Profilean argitaratzea.

**LAUGARRENA.**- Kontratua formalizatzea, 15 laneguneko gehieneko epean, adjudikazio hau jakinarazi den egunetik hasita.

**BOSGARRENA.**- Hartutako erabakia jakinaraztea Informatika Departamentuari, Kontuhartzailerari eta Kontratazio Atalari.

## **5. ONARTZEA KONTRATAZIO-MAHAI IRAUNKORRAREN OSAERA.**

9/2017 Legeak, azaroaren 8ak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, kontratazio-mahaiak xedatzen ditu, kontratazio organoen laguntzaile gisa, hainbat jardunbidetan. Era honetan, aipaturiko Legearen 320. artikulua ondoko hau xedatzen du: *Kontratatze eskumena kontratazio-batzorde batena denean izan ezik, administrazio publikoen kontratazio-organoei kontratazio-mahai baten laguntza izango dute prozedura irekian, prozedura ireki sinplifikatuan, prozedura murriztuetan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatuan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduraren kasuan. Lizitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez dagoen prozedura negoziatuan, kontratazio-mahaia eratu edo ez aukeran izango du kontratazio-organok, salbu eta 168. artikuluan b) letraren 1.a puntuan aurreikusitako urgentzia larrian oinarritzen denean, orduan nahitaezkoa izango baita mahaia eratzea. 159.6 artikuluan aipatzen diren prozeduretan ere, aukerakoa izango da mahaia eratzea.*

Tokiko entitateen kasuan, kontratazio-mahaien araubidea 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian arautzen da, ondoko ezaugarri nagusiekin:

- Kontratazio-mahaiko buru korporazioko kide bat edo funtzionario bat izango da.
- Mahaikide izango dira, kasu guztietan, korporazioko idazkaria edo, hala behar duenean, korporazioari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularra, eta kontuhartzaileria, edo ekonomia eta aurrekontua kontrolatzeko eginkizuna duen organoaren titularra.



TOLOSAKO  
UDALA

- Gainontzeko kideak kontratazio-organoak aukeratuko ditu, funtzionarioen, lan-kontratuko langileen edo zinegotzien artean.
- Kontratazio-mahaia gutxienez hiru kidek osatu behar dute. Kontratazio-mahaiko kide diren hautetsiak ezingo dira izan mahaiko kide guztien herenak baino gehiago.
- Idazkaria korporazioko funtzionario bat izango da.
- Behin-behineko langileek ezingo dute, ez mahaia osatu, ez eskaintzak baloratzeko txostenik egin. Bitarteko funtzionarioek mahaian parte hartu ahalko dute soilik behar bezalako gaikuntza duen karrerako funtzionariorik ez dagoenean eta espedientean horixe egiaztatzen denean.
- **Mahaiaren osaketa Kontratugilearen Profilean argitaratu behar da.** Halaber, Kontratazio-Mahai Iraunkor bat eratu ahal izango da.

Kontratazio-mahaiak, laguntza tekniko espezializatuko organo gisa, honako eginkizun hauek beteko ditu, beste batzuen artean:

- a) 9/2017 Legearen 140. eta 141. artikuluetan aipatzen diren alde zuzeneko baldintzak betetzeari buruzko egiaztatzeak kalifikatzea eta, kasua bada, betetze hori egiaztatzen ez duten hautagai edo lizitatuak kanporatzea erabakitzea, zuzentzeko izapidea egin ondoren.
- b) Lizitatuak proposamenak baloratzea.
- c) Kasua bada, nabarmenki baxuegiztat jotako eskaintza baten kalifikazioari buruzko proposamena egitea, 9/2017 Legearen 149. artikulua aipatzen duen prozedura izapidetu ondoren.
- d) Kontrata eskaintza onena aurkeztu duen lizitatuari adjudikatzearen aldeko proposamena egitea kontratazio-organoari, Legearen 145. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitazioa gidatzen duten administrazio-klausula partikularren pleguari jarraituz.
- e) Prozedura murriztuan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatuan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduran, hautagaiak aukeratzea, kontratazio-organoak eginkizun hori eskuordetuz gero; administrazio-klausula partikularren pleguan jaso beharko da hori.

Bestaldetik, kontratazio-mahaiak izango dituzte Autonomia Erkidegoetako legeak eta sektore publikoko kontratazioa arautzen duten araudiek ematen dizkien bestelako ahalmenak.

Horretaz gain, kontratazio-mahaiaren araubidea eta funtzionamendua ondoko legeriak arautzen ditu:



TOLOSAKO  
UDALA

- 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duenak, aplikagarri zaizkion gainontzeko xedapenetan.
- 817/2009 Errege Dekretuak, 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea, partzialki garatzen duenak.
- 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra garatzen duenak.

9/2017 Legea indarrean sartu ondoren, ezinbestekoa da baliabide elektronikoak erabiltzea kontratazio publikoan. Gure kasuan, baliabide horiek Eusko Jaurlaritzako Kontratazio Publikoko Plataforman kokatuta daude, eta aipaturiko euskarrian xedaturiko prozedura jarraitu behar da lizitazio elektronikoak gauzatzeko. Prozeduraren konplexutasunak aholkatzen du, alde batetik, Kontratazio Mahai bakarra eta iraunkorra izatea, eta bestetik, kideen kopurua handia ez izatea. Horretaz gain, kontratu bakoitzarekin lotura edo zeresanik duen arloko pertsonalak parte hartuko du aholkulari gisa, eskaintzak baloratzeko garaian.

Halaber, Tolosako Udalaren kasuan, kontratazio-teknikariari dagozkion funtzioak betetzen dituen langilea bitarteko funtzionarioa da, Administrazio Orokorreko teknikaria. Udal plantila aztertu ondoren, ez dago beste pertsonal aditurik kontratazio publikoaren arloan. Arrazoi horiek kontuan hartuta, mahaikide gisa izendatzea proposatzen da.

9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duenak, bere 326.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazioko mahaikideak dagokion eskumeneko kontratazio-organoak izendatuko ditu.

Beraz, proposamen honek eragiten ditu Tolosako Tokiko Batzarreko eskumeneko kontratazio-jardunbideak.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Tolosako Udaleko Kontratazio-Mahai Iraunkorra eratzea, Tokiko Gobernu Batzarrak sustatuko dituen kontratazio-jardunbide guztietan laguntza emateko organo gisa.

**BIGARRENA.-** Kontratazio-Mahai Iraunkorra osatuko duten honako mahaikide hauek izendatzea:



TOLOSAKO  
UDALA

### Titularrak

- Lehendakaria: alkate-udalburua, Olatz Peon Ormazabal.
- 1. bokala: udal idazkaria, Begoña Garmendia Vazquez
- 2. bokala: udal kontuhartzailea, Ainhoa Molinos Zubiaurre.
- Idazkaria (botorik gabe): Kontratazioko Administrazio Orokorreko teknikaria, Francisco Javier Araniguría Rodrigo.

### Ordezkoak

- Lehendakariaren ordezkoa: Patxi Amantegi Zubiria.
- 1. bokalaren ordezkoa: Karmele Contreras Goikoetxea
- 2. bokalaren ordezkoa: Paulino Alonso Eraso
- Idazkaria (botorik gabe): Elisabete Aramendi Aguirrezabalaga

**HIRUGARRENA.** Kontratazio-Mahai Iraunkorreko kideen ordezkapena ondoko kasuetan emango da: hutsik daudenean, bertaratu ezinean, gaixotasunean, edo, orokorrean, halabeharrezko kasuetan.

**LAUGARRENA.-** Lehendakariak eskatuta eta mahaikideek aurretik adostuz gero, Kontratazio-Mahai Iraunkorraren bileretan parte ahal izango dute aztertu beharreko gaietan adituak diren udal langileek, edota Mahaiak izendaturiko aholkulari adituek. Pertsona hauek hitza izango dute, baina ez dute boto eskubiderik izango.

**BOSGARRENA.-** Mahaiaren bilkuretan ondoko araubide juridikoa izango da aplikagarria:

- 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duena, aplikagarri zaizkion gainontzeko xedapenetan.
- 817/2009 Errege Dekretua, 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duena.
- 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra garatzen duena.
- 40/2015 Legean xedaturikoa organo kolegiatuentzako, hauetan arautzen ez diren gaietan



TOLOSAKO  
UDALA

**SEIGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

**6. 79/2018 ETA 80/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.**

Kontuhartzaitzak **79/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa da **217.866,03 €**.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** **79 /2018** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

-----

Kontuhartzaitzak **80 /2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa da **1.445,25 €**.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** **80/2018** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**